

Pedro Arraras Yeregi
Arakil, Nafarroa (1906)

Aurkibidea

Biografia

Arakilgo Murgindueta kontzejuan jaioa. Gurasoak ere Arakilgoak zituen, ama Murginduetakoa bertakoa eta aita Ihabarkoa.

Zintak

AKL-002

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1986-01-01
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

AKL-012

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Data**: 1986-01-01
- **Iraupena**: 2 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. Inauteriak Murginduetan

- **Erref**: AKL-002/001
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

<p>Inauterietan ze ohitura zegoen Murginduetan.</p>

Transkripzioa

- Karnaala, an e berrix, karnabal saten giñun ta...
- Eta ateratzen zineten etxez etxe edo?
- Bai, orduen bai.
- Eta zer egiten zen? ea, konta ezazu pixka bat...
- Or, paseoan? pues e...
- Zerbait jantzi edo?
- Bai, jartzen tzen e... koño, bah! batzuek ee... zeak, anmakomean e... falda o... zar tzek ee, sonbreroa? ta... hala! beste beix e... kantzontzillo luze atzuk, ta kamixetaekin? oi bai, oi, nik ez, ni eni(t)zen, ni ez alleatu ortaa, ez.
- Ez, e?
- Ez, geatu nitzän. Ta, te kendu zeen zeatik orduen... Murginte saldu in pa izän, ta... familiek, alde in baizuten, ta ez giñen geratu, iru famili bakarrik ta iru familiekin ya etzeon, olako kostunbreik. Oiek beiz? ta egittez etxe? etxez etxe? gu aspaldi etxea galtzen nonbat au zen-ta? arrekën beste... egun batzek? o sea, formatzen tzen kuadrillä, mutil-kuadrillä, bost o sei o zortzi o... dena-denak unittuik tä denak... etxe (b)atëa fan? ta an, jan.
- Orduan etxeetan eskatzen zen, ez? eta zer ematen zuten?
- Koño, pues, bah! säjenario (?) egunean-da, txeri-gelte urdaie, o txixtorra, o arrotzeak; eta aiekin e...
- Ez zen eramaten gerren bat edo...?
- Bai, gerrena eamaten tzen, gerrene ta geo... kordeona, musike, jeje! gerrena ta... xaskie, xaskie arrotzeak, eje! biltzeko.
- Eta afaria non egiten zen?
- Afarie? pues e... mayordomoas, nola zeatzen tzen? t'ar-, itxa, arren itxan!... ark gisatu te denak jan, gastu guzia? dibiditzen.
- Eta akordeoiarekin, ba musika bakarrik...
- Aek, juerga, kordiona!...
- Zer musika zen, hola... fandango, arin-arin eta gisa horretakoa edo modako kantak?
- Modako kantak!
- Eta jendeak kantatzen zuen?
- Bai-bai-bai...

- Oroitzen zara pixka bat zer kantuarak ziren?
- Ez, ez... ez jauna, akordatzen tut; pixkan akordatzen neiz, ez...

2. San Juan bezperako ohiturak

- **Erref:** AKL-002/002
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:02:27. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juan bezperako ohiturak Murginduetan. San Juan suaren gainetik salto egiten zen eta esaldi bat esaten zuten.</p>

Transkripzioa

- San Juan bezperan zer egiten zen? zerbait egiten zen?
- San Juan bezperan e... sub itten zen; bakotxak bee atarien... parëan? subita, famili guztie, xu artaa, fakotxak ee... bee itxan familie su aik-, aikin, kea gogor artzea, je! ta geo dena an artrixe (?)... ori bai.
- Salto egiten zen?
- Bai, xal-, saltatu, suben... llama an artute; ori bai.
- Eta zerbait esaten zen handik salto egitean? haren gainetik pasatzean? ez?
- Ez, ez-ez-ez-ez...
- Ez? sarna kontua dela-eta...
- Ori gero ez akordatzen.
- 'Sarna fuera' edo...
- Ah, guai ere! gue abuelak-eta ori zautu zuten: "Giri-giri martxa... sarna fuera, ogi t'ardo Nafarrora"; ori bai, oain...
- Eta hasieran nola esan duzu? 'gigi-giri martxa'?
- Giri-giri martxa!... xarna fuera! xarna, nunbait ee xarnez iltzen ta...
- Ta, Nafarrora...
- "Xarna fuera, ogi t'ardo Nafarrora". Ogi t'ardo eskatu ere, je!... oi ga... gue amak eta oiek bai, baño guk ez.

3. Haur denboran hamar familia Murginduetan

- **Erref:** AKL-002/003
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

<p>Bera haurra zenean, hamar familia bizi ziren Murginduetan. Murginduetan Arakilgoa da. Inguruko herri eta auzoak.</p>

Transkripzioa

- Zu jaio zinenean zenbat familia ziren Murginduetan?
- Jaio nitzenean... amar(s)... amar(s).
- Joño! eta denak joan dira, gutxika-gutxika ateratzen eta orain bakarra ere ez...
- Ta arreskeo saldu ze dana, da segi, xaldu zen, bestela ez zebille ta... akabos.
- Eta hona (Ihabarra) etortzen zineten dotrinara eta hola...
- Ah, bai, dena, dena, aunitz.
- Udalaren aldetik, ayuntamientoaren aldetik, zeinena da? Irañeta aldekoa ala Ihabarkoa?
- Ez, labarköa.
- Beti izan da? zuk beti ezagutu duzu, ezta? Murginduetan barrio txiki bat balitz bezala, e?
- Bai-bai, bai Yabar... Yabar e bai; emen, ola... ayuntamiento ori? printzipala da au, ballen, balle baita.
- Ah, Arakil, Arakil, bai...
- Arakil, bai; ta geo? bakotxak bai, alkatia ta ori? ya erriena, administratzeko, ta zer beño? ta Murgintan e bai...
- Orain Irurtzunen dago, ezta?
- Ez! e...
- Eta hemen, herri bakoitzean izango da kontzejal bat edo horrelako zerbait...
- Konzejal, bai, baia aparte.
- Baina Murginduetan beti izan da Ihabarko parte bat, ezta?
- Ez-ez, Murgintek ee bear tzöken igual alkatea, bai; pedagono o... sateute, alkate ped-, alcalde pedágono o así.
- Bai, edo pedaneo edo.
- O peraneo, ore, bai.
- Baina Murginduetan da Arakil?
- Bai, bai, Arakil da, bai.
- Irañeta ez...
- Ez, Irañeta es villa.
- Murginduetan bai...
- Murginduetan bai, Irañeta billa... Irinteaño; kuña bat, aldeo? baño... bueno, arriek? mugea... balleen mugik? Arbaitea, Irañeta o ta Murgintean... zea, mugik.

4. "Girigiri" hasierako leloa Murginduetan

- **Erref:** AKL-012/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juan bezperan sua egiten zuten, bakoitzak bere etxe atarian. Suaren gainetik salto egin eta hauxe esaten zen: "Girigiri martxa... sarna fuera, ogi ta ardo Nafarrora".</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com